



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko apirilaren 13an

33 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erregionalizazio Planaren aurkako errekurtsioa aurkeztu duten nekazariei eta nekazaritza-kooperatibei babesa eman dizaien. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak bazter utzia (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Gas hornidurarik ez duten industrialdeei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—Altsasuko Galdan, S.A. enpresatik sortutako filtrazio toxikoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—1997-1999 Hirurteko Planean ezinbestean sartutako obrei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—Plan Zuzentzailean hasiera batez aurreikusitako obra guztiak egin ez izanari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—Hiri hondakin solidoak tratatzeko inbertsioen betetze maila eskasari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Ezinbestean egindako obrak sartzera koan 1997-1999 planean eta beste hirurtetako plan batzuetan egon den ezberdintasunari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—Toki Araubideko Foru Batzordearen bidez Toki Azpiegiturei buruzko Hirurtetako Plana kontrolatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

- Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1999ko urrian bidali dituen erabakien, foru aginduen eta ebazpenen bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena (13. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostu bat, euskara itzultzaile lanpostu huts bat, oposizio-lehiaketaren bidez betetzekoa. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (26. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko Foru Lege proiektua

AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritako betez, krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko Foru Lege proiektuari egin zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2000ko martxoaren 13ko 23 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

1. EMENDAKINA

**EUSKO ALKARTASUNA/
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-
PARTIDO NACIONALISTA VASCO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikuluari ondoko testua gehitzeko emendakina:

“Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak erregelamenduz arautuko ditu aholkularitza lana egin behar duten enpresek bete behar dituzten baldintzak, bai eta haiek hautatzeko jarraitu behar diren irizpideak ere”.

10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

2. EMENDAKINA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

10. artikuluko 6. idatz-zatia aldatzeko emendakina

“Enpresak eta, hala bada, langileek...” dioen tokian ondokoa esan behar du: “Enpresak eta langileek...”

Zioak: Gure ustez zaila da berregituratzeko plan bat bideragarria ez izatea langileen eta enpresaburuen konpromisotik abiatzen bada. “...eta, hala bada, langileek...” esateak zera esan nahi du: ontzat ematen dela langileak ados egon gabe planaren edukia abian jarri ahal izatea. Ez du errealista ematen.

3. EMENDAKINA

**EUSKO ALKARTASUNA/
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-
PARTIDO NACIONALISTA VASCO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikuluko 6. idatz-zatia aldatzeko emendakina. Hona testu berria:

“Enpresaren zuzendaritzak eta langileek, lan-toki bakoitzean dauzkaten legezko ordezkarien bitartez, konpromiso formala hartzea planean aurreikusten diren berregituratzeko neurriak hartzeko, hala nola, plantilla gutxitzea, kudeaketa hobetzea, jarduerak berregituratu eta zabaltzea, errentagarri ez diren jarduerak eskutik uztea, baliabide finantzarioak ekartzea eta abar. Hala-ber, beharrezkoa denean, enpresak bere hartze-kodunekin dituen kreditu eta zorrak berriro negoziatzea daitezela eskatzen ahalko da”.

11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

4. EMENDAKINA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko emendakina. Hona testu berria:

“Berregituratzeko plana finantzatzeko itunduriko maileguen korrituen hobaria, enpresak ordaintzen ahalko duen kostua egin arte. Ezin izanen da inoiz bankuarteko merkatuan indarra duen korritutasaren % 50 baino txikiagoa izan.”

Zioak: Absurdoak izan daitezkeen kasuak saihestu nahi dira.

5. EMENDAKINA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluko 4. idatz-zatiari gehikuntza egiteko emendakina. Hona testua:

“Betiere, hobaria aplikatu ondoren, azkenean gertatzen den maileguaren korritu tasa ezin izanen da diruaren prezio ofiziala baino % 20 txikiagoa izan”.

12. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

6. EMENDAKINA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

12. artikuluko 1. idatz-zatiko lehen lerrokada aldatzeko emendakina.

“...berregituraketaren ondorioz finkatu nahi den lanpostu bakoitzeko...” dioten tokian “...berregituraketaren ondorioz finkatu nahi diren lanpostu finko bakoitzeko...”

Zioak: Gure ustez, Foru Lege honetan gaitzen diren fondoan jatorri publikoa ikusirik, mantendu nahi den enpleguaren kalitate nahikoa eskatu behar da.

18. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

7. EMENDAKINA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

18. artikuluko hirugarren idatz-zatia aldatzeko emendakina. Hona testua:

“Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak, laguntzak emateko behin betiko proposamena luzatu baino lehen, enpresaburu eta langileen ordezkari esateko dutena entzunen die, beren iritzia eman dezaten eragiketaren arrakasta bermatzeko exijitu behar izan diren betebeharrak eta baldintzei buruz edo enpresak aurkezturiko salbamendu edo berregituratzeko planetan egindako aldaketa, doiketa eta egokitzapenei buruz.”

Zioak: Departamentuaren izena zuzendu da eta enpresako arduradunei eta langileei entzuteko betebeharra sartu da.

19. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

8. EMENDAKINA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

19. artikuluko azken lerrokada aldatzeko emendakina

19. artikuluko azken lerrokadaren ordezkari testua jartzea:

“Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuak enpresak salbatu edo berregituratzeko laguntzak ematen edo ukatzen diren erabakiko du berriazko ebazpen batez, eskaria eta behar ziren agiriak aurkeztu eta gehienez ere bi hilabeteko epean; bestela, agiri guztiak ez bazeuden edo zeudenak aski ez baziren, eskatzaileak dokumentazioa osatzen duenetik bi hilabeteko epean.”

Zioak: Ez dirudi arrazoizkoa denik isiltasun administratiboa gertatzea gizartean eragin oso nabarmenak dituzten espedienteetan. Administrazioak berriaz erantzun behar du aurkezten zaizkion egoera guztiei buruz, eta azkar erantzun behar du; izan ere, denbora iragaten uzteak

larriagotu egin baitezake enpresa batek duen larrialdi egoera.

21. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

9. EMENDAKINA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

21. artikulua bukaeran beste bi lerrokada gehitzeko emendakina. Hona testua:

“Enpresako langileen ordezkariak jarraipenaren ardura hartu duten pertsonen kasuan kasuko enpresa salbatu eta berregituratzeko planaren betearazteari eta betetzeari buruzko informazioa eskatzen ahalko diete.”

“Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak aldizka informazioa emanen die agente ekonomiko eta sozialei enpresak salbatu eta berregituratzeko emandako laguntzei buruz eta erdietsitako emaitzei buruz.”

Zioak: Bideak zabaltzea enpresako langileek eta agente ekonomiko eta sozialek informazioa izan dezaten.

10. EMENDAKINA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

21. artikuluari testua gehitzeko emendakina. Hona esan behar duena:

“Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak krisian dauden enpresen jarraipena egiteko batzorde bat eratuko du. Hona haren osaketa:

- a) Nafarroako Gobernuaren ordezkariak.
- b) Langileen ordezkariak: UGT, CC.OO, ELA, LAB
- c) Enpresaburuaren elkarrekin: ANEL, CEN
- d) Foru Parlamentuko Industri Batzordeko bi ordezkari.

Batzordeak, era ez loteslean, bere iritzia emanen du Nafarroako Gobernuak krisian dauden enpresak direla-eta egiten dituen proposamenei buruz.

22. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

11. EMENDAKINA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

22. artikuluari azken lerrokada gehitzeko emendakina. Hona testua:

“Urteko txosten hori, halaber, Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Ekonomi eta Gizarte Kontseiluan dauden agente sozialei igorriko zaie.”

Zioak: Foru Lege honen aplikazio efektiboa era egokian eta nahikoan ezagutuko dela bermatzea.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erregionalizazio Planaren aurkako errekurtsua aurkeztu duten nekazariei eta nekazaritza-kooperatibei babesa eman dizaien

NEKAZARITZA, ABELTZAINNTZA ETA MENDI BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erregionalizazio Planaren aurkako errekurtsua aurkeztu duten nekazariei eta nekazaritza-kooperatibei babesa eman dizaien".

Nafarroako Parlamentuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak, 2000ko apirilaren

6an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2000ko martxoaren 6ko 21 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Gas hornidurarik ez duten industrialdeei buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak gas hornidurarik ez duten industrialdeei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko martxoaren 27ko 26 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak gas hornidurarik ez duten industrialdeei buruzko galdera bat egin eta idatzizko erantzuna eskatu zuen. Hona hemen Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagoitia Ripoll andrearen erantzuna.

1. Eskualde-industrialdeetatik batek, Lekunberrikoak, ez du egun gas naturalaren hornidurarik.

2. Eskualde horretako bezeroen balizko kontsumoa (etxeetan, merkataritzan eta industrian)

eta azpiegiturak garatzeko beharko litzatekeen azterlan tekniko-ekonomikoa kontuan harturik, Lekunberriko gas hornidura errentagarria izatetik urrunxko dago, eta haren exekuzioak Nafarroako Foru Komunitatearen diru ekarpen handia beharko luke, bai kopuru absolutotan, bai portzentualetan.

Gai honen inguruan, lankidetzarako zenbait hitzarmen izenpetu izan dira, horretarako aukerarik ez zuten eskualdeetara gasa eraman ahal izateko. Ekitaldi honetarako aurreikusirik dago beste lankidetzak hitzarmen bat gasa eramateko oraindik ez duten tokietara, bazter gelditzen ari diren merkatuetara, alegia. Toki horietan inbertsioa/kontsumoa erlazioa oso altua da eta, ezarritik dauden adarrekin konparatuta, errentagarritasuna txikiagoa. Beste toki batzuen artean, Lekunberri ere aintzat hartuko da eta, aurreko lankidetzak hitzarmenetan egin den antzera, eskualdeei laguntza emanen zaie ekarpenak, oinarrian behintzat, ikuspuntu guztietatik onargarriak diren kasuetan. Hitzarmen horietan exekuzio eta hornidurarako egutegia ere finkatuko da.

Iruñean, 2000ko martxoaren 31n

Industri, Merkataritza, turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagoitia Ripoll

Altsasuko Galdan, S.A. enpresatik sortutako filtrazio toxikoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Altsasuko Galdan, S.A. enpresatik sortutako filtrazio toxikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko martxoaren 21eko 24 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du Altsasuko Galdan, S.A. enpresatik sortutako filtrazio toxikoari buruz. Hona hemen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.-Sektore horretan aplikatzekoak diren arauak eskatutakoak: jarduera paratzeko baimenerako eskatzen diren neurri zuzentzaileak jarri eta abiarazi direla egiaztatzea, eta atmosferara jaulkitzen dena, indarra duen arautegiak ezarritako maiztasunarekin, Kontrol Erakunde Baimendu batek neurtzen duela egiaztatzea. Berriki gertatutakoa dela-eta, instalazioaren eta jaulkipenen kontrol

osagarriak egin dira, hura eragiten zuena argitu eta hartu beharreko neurriak zehazteko.

2.- Gertaeren kontrako salaketa ikusita, enpresan egindako ikuskapenaren ondorioz txosten bat prestatu eta Altsasuko Udalera igorri da, tokian tokiko alkatea baita, araei jarraikiz, zehapen ahalmena duen lehena.

3.- Kontrola areagotu egin da, instalazioen funtzionamendua zainduz eta jaulkipenak tximiniako neurketen bidez kontrolatuz.

4.- Azken kontroletan neurtu diren kutsadura-eragileak hauexek dira:

	Neurtutako balioak tximikian	Gehieneko indizeak arauetan
Partikula solidoak	2 mg/Nm ³	150 mg/Nm ³
Azido klorhidrikoa	28 mg/Nm ³	460 mg/Nm ³
Karbono monoxidoa	2 ppm	500 ppm
Nitrogeno oxidoak	9 ppm	300 ppm

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 27an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

1997-1999 Hirurteko Planean ezinbestean sartutako obrei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak 1997-1999 Hirurteko Planean ezinbestean sartutako obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko martxoaren 13ko 23 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera hau egin du ezinbestean eginko obrek mota horretako inbertsioetan

hainbesteko pisua izateko arrazoiari buruz. Hona hemen Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Onartutako obren zenbateko teknikoa 371.169.397 pezetakoa da, hain zuzen ere, ezinbestean sartutako obrei dagokiena.

Horietatik, 52.804.949 pezeta baizik ez dira Hirurteko Planekoak, kontuan harturik Behe-Erriberaren Mankomunitatearen Hiri Hondakin Solidoen Plantarako 2. fasean egindako inbertsioak, 344.200.000 milioi pezetako zenbateko teknikoarekin, Europako Batasunak eta Nafarroako Gobernuak batera finantzatu zituztela, azken honen ekarpena 30.832.788 pezetakoa izanik eta gainerakoa Europako Batasunarena.

Iruñean, 2000ko martxoaren 29an

Toki Administrazioako kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

Plan Zuzentzailean hasiera batez aurreikusitako obra guztiak egin ez izanari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak Plan Zuzentzailean hasiera batez aurreikusitako obra guztiak egin ez izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko martxoaren 13ko 23 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera zenbait egin ditu. Hona hemen Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna.

1.- Zer dela-eta ez dira Plan Zuzentzailean hasiera batez aurreikusitako obra guztiak egin, %

87,5 baizik ez baita egin? Zein da arrazoa? eskaerarik eza? planifikazio falta? toki administrazio hartzaileak epeak ez betetzea...?

Toki administrazio hartzaileak epeak ez betetzea.

2.- Orain dela gutxi bukatutako Hirurteko Plana dela-eta, Plan Zuzentzailean zein toki programazioko obretan aurreikusitako beharrianetatik, zenbat bete dira ehunekotan?

97/99rako Planean % 45,24.

97/99 urteetan, Azpiegituren Planaz gain plan berezia ere hartzen badugu kontuan, 97, 98 eta 99. urteetako plan osagarriak eta presa handia zela-eta sartutako obrak, koefizientea % 62,39koa izanen litzateke toki programazioan, eta 2000. urteko obren plana ere sartuz gero, koefiziente hori % 75,76koa izanen litzateke.

3.- Departamentuaren ustez, indarra duen formula baliagarria al da etorkizunerako ala aldake-

tak egin behar direla uste duzue? Hala bada, zernolako aldaketak egin beharko lirateke?

Toki Araubideko Oinarriari buruzko Legean ezarritako nahitaezko zerbitzuei dagozkien beha-

rrei erantzuteko baldin bada bai, bestela ez.

Iruñean, 2000ko martxoaren 30ean

Toki Administrazioiko kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

Hiri hondakin solidoak tratatzeko inbertsioen betetze maila eskasari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak hiri hondakin solidoak tratatzeko inbertsioen betetze maila eskasari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko martxoaren 13ko 23 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak galdera bat egin du hiri hondakin solidoak tratatzeko inbertsioen betetze maila eskasari buruz.

Hona hemen Toki Administrazioiko kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer dela-eta da hain eskasa hiri hondakin solidoak tratatzeko inbertsioen betetze maila?

Arrazoietako bat da Baztango Tratamendu Zentroak ez duela dokumentazioa aurkeztu behin betikoz sartzeko.

2.- Zure Departamentuaren ustez, Nafarroak alor horretan dituen beharrianak beteta al daude?

Toki Administrazioiko Departamentuak ez du plangintzarako eskumen hori, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari baitagokio.

Iruñean, 2000ko martxoaren 30ean

Toki Administrazioiko kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

Ezinbestean egindako obrak sartzekoan 1997-1999 planean eta beste hirurtetako plan batzuetan egon den ezberdintasunari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak ezinbestean egindako obrak sartzekoan 1997-1999 planean eta beste hirurtetako plan batzuetan egon den ezberdintasunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko martxoaren 13ko 23 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA7EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barre-

na jaunak galdera bat egin zuen ezinbestean egindako obrak sartzekoan 1997-1999 planean eta beste hirurtetako plan batzuetan egon den ezberdintasunari buruz.

Parlamentuan emandako balantzean xehetasunez ikusten dira obra guztiak eta zein motatakoak diren. Espediente guztietan ageri da ezinbestekoaren kalifikazioa atxikitzeko arrazoia. Magnitude horiek egoera bakoitzaren arabekoak dira, eta ezin dira alderatu aurreko planetako bestelako egoerekin.

Iruñean, 2000ko martxoaren 29an

Toki Administrazioiko kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

Toki Araubideko Foru Batzordearen bidez Toki Azpiegiturei buruzko Hirurtetako Plana kontrolatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak Toki Araubideko Foru Batzordearen bidez Toki Azpiegiturei buruzko Hirurtetako Plana kontrolatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko martxoaren 27ko 26 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Burguete Torres jaunak galdera bat egin zuen Toki Azpiegiturei buruzko 1997-1999ko Plana kudeatzeari buruz

1.- 1995eko abenduaren 13an, Toki Araubidearen Foru Batzordeak Hirurtetako Planari buruzko Foru Legearen aurreproiektua aztertu eta bere iritzia eman zuen.

1997ko uztailaren 3an, Toki Araubidearen Foru Batzordeak behin-behinekoz sartzeari aztertu eta bere iritzia eman zuen.

Halere, Toki Administrazioiko Departamentuan ez dago inolako eskaerarik jasota Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak jarraipena edo kontrola egin ahal izateko.

Gai honetaz esan beharra daukagu Nafarroako Parlamentuari horren berri zehatza eman zaio-laxehetasunak biltzen dituen azterlan baten bidez.

2.- Plan zuzentzaileak ez dira batere aldatu, salbu eta Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratua, Toki Araubideko Foru Batzordeak 1999ko apirilaren 27an eginiko bileran aldatuta batzuk

egin baitzitzazkion, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa bertan zela.

3.- Lehen xedapen gehigarriak ez du ezartzen, inondik ere, Inbertsioen Plan Osagarria.

Dagokion Dekretuak zehazten du, 4. artikuluan.

Gaurdaino hiru plan osagarri izan dira. Plan osagarri hauek aurrekontuei buruzko legeetan ezarri dira, bakoitza berean.

1997ko ekitaldiko plan osagarria, hasierako onespena, Gobernuak 1997ko irailaren 22an hartutako erabakia.

Behin-behinekoz sartzeari, Gobernuak 1997ko abenduaren 22an hartutako erabakia.

1998ko ekitaldiko plan osagarria, hasierako onespena, Gobernuak 1998ko ekainaren 1ean hartutako erabakia.

Behin-behineko erabakia, Gobernuak 1998ko urriaren 19an hartutako erabakia.

1999ko ekitaldiko plan osagarria: hasierako onespena, 1999ko maiatzaren 31koa, behin-behineko onespena, 1999ko urriaren 19koa.

Plana Parlamentura igortzea ez da aginduzkoa; aurrekontuei buruzko legean, urtero, agertarazten da.

4.- 1997ko Aurrekontuei buruzko Legea.

1998ko ekitaldiko Legean, 20. artikuluan, ez dago ezer ezarririk 5B helburuaren edo 2 helburuaren fondoei buruz.

1999ko Legean ez dago aipamenik 5B helburuaren edo 2 helburuaren fondoez.

5.- Urteko balantzea 98/99ko otsailean, 1999ko otsailean eta 2000ko otsailean igorri da Parlamentura.

Iruñean, 2000ko otsailaren 29an

Toki Administrazioiko kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

G Saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1999ko urrian bidali dituen erabakien, foru aginduen eta ebazpenen bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarari txostena eskatzea 1999ko urrian Nafarroko Parlamentura bidali ziren erabakien, foru aginduen eta ebazpenen bidez gauzatu-tako aurrekontu-aldaketen legezko tasunari buruz.

Era berean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 28an egindako bilkuran, hauxe erabaki zuen: Kontuen Ganbarak aipatu erabakiei, foru aginduei eta ebazpenei buruz emandako txostenaren edukiaz jabetu dela adieraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko otsailaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

“516/1999 EBAZPENA, irailaren 2koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Haren bitartez, baimena ematen du kreditu-sorkuntzaren bidezko zenbait aurrekontu-aldaketa egiteko.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eskaria egin du, hain zuzen ere kreditua sortzeko ondoko kontusailean: izena, “Esnekuotak erostea abeltzainen artean banatzeko”; lerroa, 97085-5; zenbatekoa, 4.827.671 pezeta. Ondoko kontusailean jasotako dirusarrerara uste baino handiagoekin finantziatuko da hori: izena, “Esnekuotak erosteko kofinantziazioa”; lerroa, 39700-1; zenbatekoa, lehengo bera.

Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran xedatzen denez, Administrazio Publikoek egindako ekarpenetatik eratorritako dirusarrek kredituak sortu ahal izanen dituzte aurrekontuetako gastuen egoera-orrian, baldin eta Foru Komunitateko Administrazioarekin batera, beren jatorriarengatik administrazio horien helburuen artean dauden gastuak finantzatzeko badira. Ekonomia eta Ogasun kon-

tselariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Agindua-ren bidez eskuordetu zaizkidan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 1999rako indarra duen aurrekontuan, kreditua sortzea ondoko kontusailean: 71120-6090-7151; proiektua, 20002; izena, “Esnekuotak erostea abeltzainen artean banatzeko”; lerroa, 97085-5; zenbatekoa, 4.827.671 pezeta. Ondoko kontusailean jasotako dirusarrerara uste baino handiagoekin finantziatuko da hori: 71120-7000; proiektua, 20002; izena, “Esnekuotak erosteko kofinantziazioa”; lerroa, 39700-1; zenbatekoa, lehengo bera.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuko Kontuhartzaitza delegatura.

Iruñean, 1999ko irailaren 2an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“517/1999 EBAZPENA, irailaren 2koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Haren bitartez, baimena ematen du kreditu-sorkuntzaren bidezko zenbait aurrekontu-aldaketa egiteko.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eskaria egin du, hain zuzen ere kreditua gehitzeko ondoko kontusailean: “IFOP laguntzak”; lerroa, 29250-4; zenbatekoa, 7.727.304 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrerara uste baino handiagoekin finantziatuko da: “FEOGA laguntzak eta IFOP laguntza, 866/90 eta 867/90 Erregelamenduen markoan”; lerroa, 39950-0; zenbatekoa, lehengo bera.

Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran xedatzen denez, Administrazio Publikoek egindako ekarpenetatik eratorritako dirusarrerek kredituak sortu ahal izanen dituzte aurrekontuetako gastuen egoera-orrian, baldin eta Foru Komunitateko Administrazioarekin batera, beren jatorriarengatik administrazio horien helburuen artean dauden gastuak finantzatzeko badira. Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Agindua- ren bidez eskuordetu zaizkidan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 1999rako indarra duen aurrekontuan, kreditua sortzea ondoko kontusailean: 72120-7701-7151; proiektua, 60001; izena, "IFOP laguntzak"; lerroa, 29250-4; zenbatekoa, 7.727.304 pezeta.

Ondoko kontusailean izandako dirusarrera uste baino handiagoekin finantziatuko da hori: 72120-7902; proiektua, 60001; izena, "FEOGA laguntzak eta IFOP laguntza, 866/90 eta 867/90 Erregelamenduen markoan"; lerroa, 39950-0.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuko Kontuhartzaitza delegatura.

Iruñean, 1999ko irailaren 2an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"518/1999 EBAZPENA, irailaren 2koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Haren bitartez, baimena ematen du kreditu-sorkuntzaren bidezko zenbait aurrekontu-aldaketa egiteko.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eskaria egin du, hain zuzen ere kreditu-gehikuntza egiteko ondoko kontusailean: "FEOGA laguntzak"; lerroa, 29240-7; zenbatekoa, 650.000.000 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera uste baino handiagoekin finantziatuko da: "FEOGA laguntzak eta IFOP laguntza, 866/90 eta 867/90 Erregelamenduen markoan"; lerroa, 39950-0; zenbatekoa, lehengo bera.

Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran xedatzen denez, Administrazio Publikoek egindako ekarpenetatik eratorritako dirusarrerek kredituak sortu ahal izanen dituzte aurrekontuetako gastuen egoera-orrian, baldin eta Foru Komunitateko Adminis-

trazioarekin batera, beren jatorriarengatik administrazio horien helburuen artean dauden gastuak finantzatzeko badira. Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Agindua- ren bidez eskuordetu zaizkidan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 1999rako indarra duen aurrekontuan, kreditua sortzea ondoko kontusailean: 72120-7701-7151; proiektua, 60001; izena, "FEOGA laguntzak"; lerroa, 29240-7; zenbatekoa, 650.000.000 pezeta.

Ondoko kontusailean izandako dirusarrera uste baino handiagoen kargura finantziatuko da hori: 72120-7902; proiektua, 60001; izena, "FEOGA laguntzak eta IFOP laguntza, 866/90 eta 867/90 Erregelamenduen markoan"; lerroa, 39950-0.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuko Kontuhartzaitza delegatura.

Iruñean, 1999ko irailaren 2an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"EBAZPENA 541/1999, de 14 de septiembre, Ekonomi zuzendari nagusiak emana; haren bitartez, kreditu-gehikuntzaren bidez aurrekontua aldatzea baimendu du.

Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Funtzio Publikoaren Antolamenduko Zerbitzuak eskaria egin du, hain zuzen ere ondoko kontusailean kreditua gehitzeko: izena, "Epaia betearaztea"; lerroa, 02300-7; zenbatekoa, 92.522 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera uste baino handiagoen kargura finantziatuko da: izena, "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea"; lerroa, 36695-5. Haren zenbatekoa ez zen sartu joan den uztailaren 28an emandako 448/1999 ebazpenean.

1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legearen 4. artikulua- ren 1. idatz-zatiko f) letran eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Agindua- ren bidez eskuordetu dizkidanak erabiliz, Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren uztailaren

29ko 159/1999 Foru Aginduak eskuordetu zizkidan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 1999rako gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: 04000-1709-1226; proiektua, 20002; lerroa, 02300-7; izena, "Epaia betearaztea"; zenbatekoa, 92.522 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera uste baino handiagoen kargura finantziatuko da: 11400-8700; proiektua, 12000; lerroa, 36695-5; izena, "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea".

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Lehendakaritza eta Barne Departamentura (Funtzio Publikoaren Antolamenduko Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Departamentu horretako Kontu-hartzaitza delegatura.

Iruñean, 1999ko irailaren 14an

Ekonomi zuzendari nagusia: José Ángel Zubiaur Carreño"

"551/1999 EBAZPENA, irailaren 17koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Haren bidez, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu-aldaketak egiteko baimena eman du.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren Idazkaritza Teknikoak kreditu-transferentzia eskatu du, hain zuzen ere ondoko kontusailetik: izena, "Eskola Garraioa"; lerroa, 13370-8; zenbatekoa, 35.000.000 pezeta. Ondoko kontusailletara eginen da transferentzia: "Programa propioak"; lerroa, 14540-4; zenbatekoa, 20.000.000 pezeta; "Gastu anitzak"; lerroa, 14340-1; zenbatekoa, 15.000.000 pezeta.

Nafarroako Ogasunari buruzko abenduaren 26ko 8/1998 Foru Legeko 47. artikuluan ezarritakoaren indarrez, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak baimena eman hal izanen du kapitulu ekonomiko bereko kreditu-transferentziak egiteko, betiere Departamentu bereko programen artekoa izan eta programa horien helburuak aldatzen ez badira. Beraz, Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren uztailaren 29ko 159/1999 Foru Aginduak eskuordetu zizkidan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 1999rako indarra duen gastuen aurrekontuan, kreditu-transferentzia egitea ondoko kontusailetik: 41110-2230-4252; proiektua, 10004; lerroa, 13370-8; izena, "Eskola Garraioa"; zenbatekoa, 35.000.000 pezeta. Ondoko kontu-

sailletara eginen da transferentzia: 42110-2266-4561; proiektua, 51000; lerroa, 14540-4; izena, "Programa propioak"; zenbatekoa, 20.000.000 pezeta y 42000-2269-4511; proiektua, 50000; lerroa, 14340-1; izena, "Gastu anitzak"; zenbatekoa, 15.000.000 pezeta.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Hezkuntza eta Kultura Departamentura (Idazkaritza Teknikoa), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Departamentu horretako Kontu-hartzaitza delegatura.

Iruñean, 1999ko irailaren 17koa

Ekonomi zuzendari nagusia: José Ángel Zubiaur Carreño"

"552/1999 EBAZPENA, irailaren 17koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Haren bitartez, kreditua transferituz aurrekontua aldatzeko baimena eman du.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak eskaria egin du kreditu-transferentzia egiteko ondoko kontusailera: izena, "Energia berriztagarrietan inbertitzeko dirulaguntzak"; lerroa, 30480-4; zenbatekoa, 32.500.000 pezeta. Ondoko kontusailean baliagarri dagoen kredituaren kargura finantziatuko da: izena, "Abalatutako kredituen bonifikazioa. Bideragarritasun azterlanetarako eta abarretarako dirulaguntzak"; lerroa, 98005-2; zenbatekoa, lehengo bera.

Nafarroako Ogasunari buruzko abenduaren 26ko 8/1998 Foru Legeko 47. artikuluan ezarritakoaren indarrez, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak baimena eman hal izanen du kapitulu ekonomiko bereko kreditu-transferentziak egiteko, betiere Departamentu bereko programen artekoa izan eta programa horien helburuak aldatzen ez badira. Beraz, Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren uztailaren 29ko 159/1999 Foru Aginduak eskuordetu zizkidan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 1999rako indarra duen gastuen aurrekontuan kreditu-transferentzia egitea, ondoko kontusailera: 81130-7800-7311; proiektua, 10002; izena, "Energia berriztagarrietan inbertitzeko dirulaguntzak"; lerroa, 30480-4; zenbatekoa, 32.500.000 pezeta. Ondoko kontusailetan baliagarri dagoen kredituaren kargura finantziatuko da transferentzia: 81010-7701-7232; proiektua, 30004; izena, "Abalatutako kredituen bonifikazioa. Bideragarritasun azterlanetarako eta abarretarako dirulaguntzak"; lerroa, 98005-2; zenbatekoa, lehengo bera.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Departamentu horretako Kontu-hartzaitza delegatura.

Iruñean, 1999ko irailaren 17koa

Ekonomi zuzendari nagusia: José Ángel Zubiaur Carreño”

“**557/1999 EBAZPENA**, irailaren 22koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana; haren bitartez, baimena eman du kreditu-gehikuntzaren bidez aurrekontua aldatzeko.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Dirubilketa Zerbitzuak eskaria egin du. Hartan, kreditua gehitzeko eskatzen du gastuen ondoko kontusailan, hain zuzen ere: “Behar ez ziren zergak eta tributu-dirusarrerak itzultzeko berandutze-korrituak”; lerroa, 09320-0; zenbatekoa, 50.000.000 pezeta. Ondoko kontusailaren kargura eginen da: “Aurreko ekitaldietako superbaita aplikatzea”; lerroa, 36695-5; zenbatekoa, lehengo bera.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluan eta 1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu orokorre buruzko abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legeko 4. artikuluko 1. idatz-zatiko f) letran ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren uztailaren 29ko 159/1999 Foru Aginduak eskuordetu zizkidan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 1999rako gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailan: 12510-3501-6124; proiektua, 25001; lerroa, 09320-0; izena, “Behar ez ziren zergak eta tributu-dirusarrerak itzultzeko berandutze-korrituak”; zenbatekoa, 50.000.000 pezeta. Ondoko kontusailaren kargura finantziatuko da: 11400-8700; proiektua, 12000; lerroa, 36695-5; izena, “Aurreko ekitaldietako superbaita aplikatzea”; zenbatekoa, lehengo bera.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Dirubilketa Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Departamentu horretako Kontu-hartzaitza delegatura.

Iruñean, 1999ko irailaren 2an

Ekonomi zuzendari nagusia: José Ángel Zubiaur Carreño”

“**566/1999 EBAZPENA**, irailaren 24koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Haren bitartez, kreditua transferituz aurrekontua aldatzeko baimena eman du.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak eskaria egin du kreditu-transferentzia egiteko ondoko kontusailera: izena, “Nafarroako Berrikuntza eta Teknologiarako Agentziarentzako transferentziak”; lerroa, 30985-7; zenbatekoa, 25.000.000 pezeta. Ondoko kontusailan baliagarri dagoen kredituaren kargura finantziatuko da: izena, “Lanerako prestatzeko lantegien programa”; lerroa, 32490-2; zenbatekoa, lehengo bera.

Nafarroako Ogasunari buruzko abenduaren 26ko 8/1998 Foru Legeko 47. artikuluan ezarritakoaren indarrez, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak baimena eman hal izanen du kapitulu ekonomiko bereko kreditu-transferentziak egiteko, betiere Departamentu bereko programen artekoa izan eta programa horien helburuak aldatzen ez badira. Beraz, Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren uztailaren 29ko 159/1999 Foru Aginduak eskuordetu zizkidan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 1999rako indarra duen gastuen aurrekontuan, kreditu transferentzia egitea ondoko kontusailera: 81110-4400-5424; proiektua, 30003; izena, “Nafarroako Berrikuntza eta Teknologiarako Agentziarentzako transferentziak”; lerroa, 30985-7; zenbatekoa, 25.000.000 pezeta. Ondoko kontusailan baliagarri dagoen kredituaren kargura finantziatuko da transferentzia: 84200-4709-3221; proiektua, 72001; izena, Lanerako prestatzeko lantegien programa”; lerroa, 32490-2; zenbatekoa, lehengo bera.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Departamentu horretako Kontu-hartzaitza delegatura.

Iruñean, 1999ko irailaren 24an

Ekonomi zuzendari nagusia: José Ángel Zubiaur Carreño”

“**569/1999 EBAZPENA**, irailaren 27koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana; haren bitartez, kreditu-gehikuntzaren bidez aurrekontua aldatzea baimendu du.

Ikusirik Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuak egin duen eskaria. Hartan, kreditua gehitzeko eskatzen du gastuen ondoko kontusailan, hain zuzen ere: “Obligazio fidantzuak

ez betetzeagatik sortutako ordainketak"; lerroa, 06840-9; zenbatekoa, 46.875.000 pezeta. Ondoko kontusailaren kargura eginen da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea"; lerroa, 36695-5.

